



GEZURRA DIRUDI

DONOSTIYA apaindu eta edertzen lana ugari egiten bada gaur, orain berrogei ta amar urte-re egin zan makiñabat Lan, erriya esitzen zuten murru beltz, lodi, galant ayek lurperatu ziranian.

Mendiyan perrechikuak, zizak eta gibelurdiñak azaltzen diran bezela, sortzen ziran emen eta an, eche aundi, galant, apañak.

Bañan, nola jauregi antzeko eche eder ayek ezin alcha ziran beren gisa, nola gizonen lan ugarien bitartez jasotzen ziran bakarrik, gizonak biar ziran, eta biar ziran ugari; eta DonoStiyan ez zan arkitzen biar aña.

Orduban inguruko eta urrunagoko erriyetatik etorri zan gazte pilla bat, mardul, sendo pizkorra.


Ayen arteko bat Migel Mari zan, Goyerriko erri koškor batian jayo eta ordu arte bertan bizituba. Arotza zan, langillia, indartzuba, kemen aundikua.

Lanerako guztiz artakua zan, bañan gizarajuak eskolarik ez zuben. Onek ematen zion min, onek barren guziyan kiskaltzen ziyon.

Makiñabat aldiz arkitzen zuten lagunak, mai ondoan iširi, eta paper baten aurrian ezin zirriburruak somaturik

—Bañan gizona, papera goikuz bera daukazu.

—¿Eta zer? Nik batera edo bestera berdiñ irakurtzen det.



DONOSTIYA.—ERRI BERRIYAN LENBIZI EGIN ZIRAN ECHIAK

Eta arrazoya zuben.

Azkenian ikusirik zirriburru ayek buruan ezin sartu zitubela, alchako zan esanaz: ¡Gezurra dirudi!

Eta itz oyekin antolatzen zituben bere estuasun guziyak.

Len esan degun bezela, guztiz langillia eta azkarra zan, eta naguziyak naitasun aundiya artu ziyon. Egiten ari ziran echian langill buru bezela jarriya zeukan.

Illunar batian egur aundi bat jaso biar zuten bere lekura. Migel Mari-k neurriyak artu zituben, ebaki zuten, eta jasotzerakuan arkitu ziran..... motsegi zala.

Migel Mari-ren karrasiyak orduban; begiratu batera ta bestera, gora ta bera, juan ara ta onera, ibilli eruen gisa, bañan egurra geldi eta len bezin motz.

Eta ala diyo Migel Mari-k:

¡Motsegi! ¡Motsegi! ¡Bañan batetik bezela-re bi muturretatik motsegi!

¡¡Gezurra dirudi!!

A. DARRÁ

